

# Enpresaren ekonomia

- BATXILERGOA
- LANDIBE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKAINASUN  
CAMPUSA

CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL



**Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.**

**Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.**

## A AUKERA

**A1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.**

Irakur ezazu testu hau, eta erantzun iezaiezu galderari:

### **EUSKO JAURLARITZAK ERREFORMA ELEKTRIKOA DELA-ETA DESLOKALIZAZIO-ARRISKUA DAGOELA OHARTARAZI DU**

Onartutako erreforma elektrikoa dela eta, euskal **ETE**-en % 60rentzat faktura % 20 baino gehiago igoko da. Haien sareen ezaugarriengatik, bereziki kaltetuta irtengo dira enpresa horiek.

Bidesarien gorakada bereziki krudela da euskal enpresentzat, zeren eta, gehienak 30 kW-eko sarera lotuta daudenez, 6.1 tarifa kontratatzen behartuta baitaude. Tarifa hori da gehien igo denetariko bat: gainerakoak baino % 74raino garestiagoa da. Lehendik zetorren diskriminazio-egoera hori, eta 80 eta 100 milioi euro arteko gailuzko zekarren berekin, baina orain, erreformarekin, larriagotu egin da.

Euskadik **deslokalizazioen** arriskua gainean du, gerta bailiteke beste erkidego batzuetan instalazioak dituzten konpainiek haietara desbideratzea beren ekoizpena.

Industriako sailburuak bilera egingo du **sektoreetako klusterrekin** eta beste erakunde batzuekin, arazoa aztertzeko eta ondorioak murrizteko formulak aztertzeko.

Krisitik aterako bagara, **enpresen lehiakortasuna** handitu beharra dago, baina horren aurka doa erreforma. **Energiaren kostuak** dira garrantzizkoenak, langileen kostuekin batera; beraz, merkatuan lehiatzeko funtsezko faktore bat da energiaren prezioa.

#### **Galdekizunak:**

- Defini itzazu, eta komentatu, testuan azpimarratuta dauden hitzak.
- Enpresa baten kokalekua hautatzeko orduan, zer faktorek eragiten dute? Azaldu itzazu faktore horietako lau, testuaren edukia kontuan hartuta.

**A2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.**

IMPRABI S.A. enpresak kaxak fabrikatu eta saltzen ditu, eta biltegian, gutxienez, 500 kartoi-bobina izaten ditu. Egunean fabrikatzen dituen kaxak ekoizteko, 123 bobina behar izaten ditu. Betidanik hornitzaile bati erosi izan dio kartoia, baina hark 10 egun behar izaten dituen eskaera entregatzeko, beste hornitzaile bati erostea pentsatzen ari da. 2.091 bobinako eskaera egiten du, eta urtean 360 egunetan ekoizten du.



Datu horiekin, kalkula itzazu:

- Eskaera-puntua
- Batez besteko stock-maila
- Errotazio-indizea
- Adieraz ezazu egoera grafikoki

**A3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.**

Ingeniaritza Industrialeko Masterreko ikasleek proiektu bat egin behar dute, eta lau ikasleko talde batek ibilgailu elektriko bat egitea erabaki du. Unibertsitateak tailerra, makineria eta tresneria haien esku jartzen du alokairu baten truke. Gainerako materiala ikasleek erosi behar dute.

Ikasle taldeak honela berreskuratu nahi du automobila ekoizteko kostua: ikasturte-amaierako jaia izango den aste-bukaeran, ibilgailu elektriko erabiltzeko aukera eskainiko die ikasleei zein irakasleei 30 euroko prezioan bidaia bakoitzeko.

Aurreikusten dituzten ekoizpen-kostuak hauek dira:

- Tailerra eta makineria lau hilabetez alokatzea, 800 €
- Erabilitako aluminioa, 250 €
- Gurrpilak, 100 €
- Motorra, 200 €
- Bateria, 100 €
- Bestelakoak (motelgailuak, kableak, torlojuak, zirrindolak...), 50 €

Ikasleek proiektuan sartutako orduen kostua ez da kontuan hartu behar. Aurreikusten da bidaia bakoitzeko kostuak, 5 € izango direla: bateria kargatu beharra, gurrpilen higadura, ordezko piezak, mantentze-lana eta abar.

1. Zenbat bidaia egin beharko dira aipatutako kostuak estaltzeko? Marraztu ezazu grafikoa.
2. 50 bidaia egiten badira, zenbatekoa izan beharko luke, gutxienez, prezioak ezer ere ez galtzeko?
3. Zenbat bidai egin beharko lirateke etekinen balioa 1500 eurokoa izateko?
4. Defini itzazu *costu finkoak eta aldakorrak*, eta ipin ezazu bakoitzeko adibide bat.

**A4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu**

“LAGUNEKIN S.KOOP.” enpresak A eta B inbertsio-proiektuen artean aukeratu behar du:



A proiektuak ezaugarri hauek ditu:

Hasierako kostua	18.600 €
Urteko diru-sarrerak	24.700 €
Urteko ordainketak	11.000 €
Hondar-balioa	6.200 €
Iraupena	4 urte

B proiektuak, berriz, hauek:

Hasierako kostua	45.500 €
Urteko kostu finkoak	15.050 €
Unitate bakoitzeko salmenta-prezioa	52 €
Unitate bakoitzeko kostu aldakorak	26 €
Iraupena	3 urte

B proiektuan, urteko ekoizpen- eta salmenta-bolumen hauek izatea espero da:

1. urtea	1.600 unitate
2. urtea	1.400 unitate
3. urtea	1.700 unitate

Joko dugu LAGUNEKIN S.KOOP enpresak bere inbertsioei, inflaziorik gabe, % 5eko errentagarritasuna eskatzen diela eta urteko inflazio-tasa metatua % 2 izango dela.

- Zer inbertsio aukeratu beharko luke balio eguneratu garbiaren (BEG) irizpidearen arabera? Arrazoitu erantzuna.
- Eta inbertsio bakoitzaren berreskuratze-epearen (Pay Back) irizpidea erabiliz, zein da egokiena? Arrazoitu erantzuna.
- Bi irizpideetatik, zein da egokiena? Zergatik?

#### A5. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1 puntu

Enpresa baten datu hauek ezagutzen ditugu:

- Akzio kopurua: 100.000.000.
- Akzio baten balio nominala: 500 €.
- Akzio baten balio efektiboa: 800 €.

Kalkula itzazu:

- Akzioen kotizazioa.
- Enpresaren balioa.
- Enpresaren kapitala.



## B AUKERA

### B1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

XERA enpresan, 14.000 unitate ekoizteko, 10 langile behar izan dira 19 egunez, eta langileak 8 orduz aritu dira lanean egunero. YOKO enpresan, berriz, ekoizpen bera lortzeko, 7 langile kontratatu dira 20 egunerako, eta, han ere, langileak egunean 8 orduz aritu dira lanean.

Datu horiek kontuan izanda, erantzun galdera hauei:

- Zein da langileko orduko produktibitatea bi enpresetan (edo enpresa bakoitzan)?
- Konparatu bi enpresetako produktibitatea ehunekotan (%).
- Zer produkzio-maila izan behar luke XERA enpresak YOKO enpresaren produktibitate bera lortzeko, lanordu berak erabiliz?

### B2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

Enpresa batek, iaz, bere produktua egiteko, batez beste biltegian 1.000.000 euroko lehengaien izakinak eduki zituen (kantitate hori erosketa-prezioaren arabera zenbatetsita dago). Salmenta-bolumena, produktuen salmenta-prezioaren arabera zenbatetsita, 40.000.000 euro izan zen eta, batez beste, bezeroek enpresarekin 1.000.000 euroko zorra izan zuten. Enpresa horri dagozkion beste zenbait datu, guztiak ere kostuaren arabera zenbatetsita, hauek dira:

- Fabrikazio bidean dauden produktuen batez besteko balioa: 1.000.000 €.
- Produktu amaituen batez besteko izakinak biltegian: 1.000.000 €.
- Urteko salmentak: 36.000.000 €.
- Urteko ekoizpenaren balioa: 20.000.000 €.

Kalkula ezazu enpresaren batez besteko heltze-aro finantzarioa, kontuan harturik hornitzaileen batez besteko saldoa 2.000.000 € izan zela, hornitzaileei ordaintzeko epea, batez beste, 60 egunekoa izan zela eta erositako lehengai guztiak kontsumitu zirela. Azaldu ezazu emaitza.

### B3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 4 puntu.

2013ko abenduaren 31n, eguzkitako betaurrekoak egin eta saltzen dituen BEGIEGUZKI SA enpresaren ondarea elementu hauek osatzen dute:

1.- Kutxabanki 5 urteko epean ordaindu beharreko mailegua	30.000 €
2.- Kutxabanki 4 hilabeteko epean itzuli beharreko mailegua	11.000 €
3.- Kutxabankeko kontu korrontean duen dirua	1.300 €
4.- Enpresak bere jarduerarako erabiltzen duen lokalaren balioa	50.000 €



5.- Biltegian dauzkan lehengaien balioa	6.000 €
6.- Bulegoko mahai, apal, aulki eta bestelako balioa	7.000 €
7.- Bulegoan dituen ordenagailuen balioa (500 €-ko balioa duten programa informatikoak barne)	3.500 €
8.- Lehengaiak erosi zituen eta zorretan dauka	4.000 €
9.- Ogasun Publikoarekiko zorra, BEZa dela eta	1.000 €
10.- Gizarte Segurantzarekiko zorra	1.500 €
11.- Bulegoan bertan ordainketa txikiak egiteko dauzkan txanpon eta billeteak	200 €
12.- Eguzki-betaurrekoak egiteko makinaren balioa	9.000 €
13.- Eguzki-betaurrekoak saldu dizkio Donostiako denda bati, eta dendak dirua zor dio	3.000 €
14.- Biltegian saltzeko prest dauden eguzki-betaurrekoen balioa	2.000 €
15.- Betaurrekoak egiteko makina 10 hilabete ordaindu behar da	2.500 €
16.- Amortizazio metatua	2.000 €
17.- Enpresaren kapital soziala	???????

Hau eskatzen da:

- Enpresaren balantzea ondare-masatan sailkatuta aurkeztea.
- Errotazio-fondoa edo maniobra-fondoa kalkulatzeko eta emaitza aztertzea.
- Enpresaren finantza-egoera aztertzea, ratio hauek erabiliz:
  - Bermea
  - Zorpetze osoa
  - Likidezia
  - Altxortegia
  - Ibilgetua

#### B4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1,5 puntu.

Irakur ezazu testu hau, eta defini itzazu letra lodiz nabarmenduriko hitzak:

**Banaketaren** arloan jarduten duen **kooperatiba** batek, bere 2013-2016 urteetarako **plan estrategiko** berriaren barruan, merkataritza kanpaina gogor bat hasi du: familiek gehien eskatzen dituzten produktuen arteko 2.000 produkturen prezioak % 15 jaitsi ditu. Haietako 1.600, gutxi gorabehera, lehen markako fabrikatzaileenak dira, beste 300 bere markakoak eta 200 baino gehiago produktu freskoak. Gerta liteke horrek **prezio-gerra** bat sorraraztea, kontsumitzaileen onurarako.



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

### ENPRESAREN EKONOMIA

Ikasleari ariketa bakoitzean bi aukera ematen zaizkio, A eta B. Bi aukerek 4 edo 5 galdera dituzte. Galderak balioesteko, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 3ko 23/2009 DEKRETUAN ekonomia- eta enpresa-gaiekin lotuta eta eskumen gisa azaltzen diren helburuak betetzen diren ala ez ebaluatuko dute zuzentzaileek.

#### A AUKERA

Bi aukeretan lehenak ekonomiako dibulgazio-testu bat du, komunikabide sozialetatik jasotakoa, eta edukia eta testuko termino tekniko batzuk ulertzea eskatzen da. Galderetan, termino batzuen esanahia aurkeztutako testuaren testuinguruan azaltzea eskatzen da, edo, bestela, testuari lotutako argudio ekonomikoren bat azaltzea. Galdera honek 2 puntu edo **2,5 puntu** balio du, gehienez, goiburuan adierazitakoaren arabera. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

Lehen aukerak beste hiru galdera ditu; haietan, enpresa-ekonomian ezagutza izatea edo oinarritzko teknikak jakitea balioesten da. Galdera horiek gehienez **2,5 puntu** edo **2 puntuko** balorazioa dute, goiburuan adierazitakoaren arabera. Teknika egokiak menderatzea nahiz lortutako emaitzak zuzen interpretatzea balioetsiko da.

Azkenik, lehen aukeran baliteke galdera bat egotea ekonomia-terminoen ezagutza eta haien esanahia adierazteko gaitasuna ebaluatzeko. Galdera horrek **1,5 puntu** balio du, gehienez. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

#### B AUKERA

Bigarren aukerak balantze-analisi bat du. Galdera honek **4 puntu** balio du, gehienez. Hauek balioetsiko dira: teknika egokiak menderatzea, emaitzen esanahi ekonomiko eta finantzarioa interpretatzea, eta, batez ere, lortutako informazioa oinarri hartuta enpresa-egoeraren diagnostikoa egitea eta, ratio sinpleen bidez, desorekak eta desdoitzeak gertatuko balira hautemateko gai izatea. Batez ere, ikaslea emaitzen esanahi ekonomikoa ulertzeko eta interpretatzeko gai izatea balioetsiko da. Akats aritmetikoen kasuan, lehenetsuna eman behar zaio ikaslearen arrazoibidearen ebaluazioari, eta ez zenbakizko emaitzaren zuzentasunari.

Bigarren aukerak beste bi galdera ditu; haietan, enpresa-ekonomian ezagutza izatea edo oinarritzko teknikak jakitea balioesten da. Galdera horiek gehienez **2,5 puntu** edo **2 puntuko** balorazioa dute, goiburuan adierazitakoaren arabera.

Azkenik, bigarren aukerako galdera batean, ekonomia-terminoak ezagutzea eta haien esanahia adierazteko gaitasuna ebaluatzen dira. Galdera horrek gehienez **1,5 puntuko** balorazioa du. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

---

Kalifikatzeko irizpide gisa, alderdi hauek hartu behar dira kontuan, besteak beste: gai honetarako ezarritako gaitasunak ikasleak eskuratuak izatea, enpresaren ekonomiako tekniken ezagutzari eta haiek aplikatzeko gaitasunari dagokionez; argudio ekonomikoak erabiltzea; ekonomia-terminoak jakitea; eta informazio ekonomiko-finantzarioa interpretatzen jakitea. Gaitasunen eskuratze-maila adierazi behar du kalifikazioak.

Oro har, galdera guztietarako, nahikoa izango da galdetzen zaionari bakarrik erantzutea ikasleak. Balorazio positiboa emango zaie haiei: argitasuna, laburtasuna, galderak zehaztasunez erantzutea, azalpena ordenatuta eta egituratuta ematea, erabiltzen den terminologia egokia izatea, prozedura eta baliabide grafikoak erabiltzea —eskemak, marrazkiak, grafikoak, eta abar—, eta galderei arrazoituta erantzutea.

Probetan gehienez 10 puntu lor daitezke; beraz, 0 eta 10 puntu bitarteko puntuazioa lortu ahal izango du ikasleak. Galderetan lortutako kalifikazioen batura izango da probaren azken kalifikazioa. Galdera bakoitzak bi atal edo gehiago izan ditzake; atal bakoitzaren gehienezko puntuazioa bakoitzaren goiburuan adierazten da.

Proba hauetan, ikasleak erakutsi behar du adimen-heldutasuna duela, enpresen oinarrizko arazo ekonomikoak identifikatzeko eta haiei buruz iritzia emateko abilezia duela eta garrantzi sozialeko fenomenoaren analisisian matematika-tresnak aplikatzen dakiela. Halaber, ematen zaion informazioa hautatzeko eta interpretatzeko gai izan behar du, enpresen jarduera ekonomikoaren ondorioz sortzen diren arazoak irizpide ekonomikoaren arabera analizatzen eta balioztatzen dituela egiaztatzeko.